

ORDENANTZA HASIERAKO TXOSTENA

GAIA: KIROLETAKO ORDENANTZA ESPEZIFIKOA ETA ERANSKINAK ALDATZEKO PROPOSAMEN.

Espedientea: 2018IORD0007

Aurrekariak

Azaroaren 17ko 38/2003 legeko 17.2 artikulua xedatu duenez, Tokiko Korporazioetako diru-laguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua exekutatzeko oinarrietan, diru-laguntzen ordenantza orokorretan edota diru-laguntza espezifikoetarako ordenantza berezietan jasoko dira.

Tolosako Udalak, 2017ko apirilaren 25eko udal batzarraren erabakiz dirulaguntzen ordenantza orokorrarekin batera, kirol zerbitzuko ordenantza espezifikoa eta bere eranskinak onartu zituen. Hain zuzen ere, honako lau lerroak bereizten dira:

1. Kluben egiturak indartzeko eta garatzeko (1. eranskina)
2. Eskola kirolaren kudeaketarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko (2. eranskina)
3. Kirol jarduera bereziak antolatzeko (3. eranskina)
4. Igeriketa kanpaina gauzatzeko (4. eranskina)

Tolosako Udalbatzarrak, 2018ko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran, kiroletako ordenantza arautzaile eta eranskinetan egindako aldaketei hasierako onespina eman zion. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018ko ekainaren 7an argitaratu zen eta bertan aipatzen zen bezala, informazio publikorako epea igarotakoan, erreklamaziorik gertatu ez bada, onespina behin betiko onespina bihurtuko zan.

Hori horrela eta arauzko jendeaurreko informazio epea gaintu eta gero erreklamazio aurkeztu gabe, behin betiko onartutzat eman zen Udalbatzarrak, 2018ko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran hartutako erabakia.

Aurrekari hauek direla eta, funtsezko arrazoi nahikoa badago, berriz ere, 2018ko maiatzaren 29an Udal batzarrak onartutako kiroletako dirulaguntzen ordenantza espezifikoa eta bere eranskinen aldaketa proposatzeko.

Arazoi hauen artean esanguratsuenak honako hauek: **eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentu kopurua murriztu eta sinplifikatzea alde batetik, Tolosako ikastetxe eta klubengun egoeraren errealitatea kontutan hartuta, irizpide eta puntuazioen egokitasun zintzoena bermatzea, bestetik.**

Hortaz gainera, balorazioa justu eta objetiboena lortzeko asmoz, indikadore edo irizpide batzuen moldaketa egin da proposamen berrian.

Proposatzen diren aldaketak, eranskinen honako atalei eragiten die gehien bat:

1. Eskararekin batera aurkeztu beharreko dokumentuei

2. Irizpide eta puntuaketei
3. Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazioari

Behar bezala identifikatu diren herritar, erakunde eta elkarteek euren iritzia eta iradokizunak aurkezteko aurretiko kontsulta publikoko tramitea burutu eta epea igaro ondoren, kontsulta, proposamen edo eskaerarik batere egin ez denez, Ordenantza-proposamena egiten da ondoren xedatzen denaren arabera:

Kiroletako ORDENANTZA espezifikoa:

Aldatutako puntuak:

2. puntua: Helburuan sartzen da " [ikastetxeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarteek, horrela dagokion kasuetan.](#)"

[Tolosako Udalaren Kirol Politikako irizpide nagusiak.](#)

[4.puntuaren erantsiko da:](#)

Teknikariak kualifikatzea, hauen profesionalizazio eta lan merkatuarekiko erregulazioa erraztuz, [euskaraz egin ahal izateko gaituz.](#)

[11.Euskararen erabilera sustatzea bere jarduera-esparruaren barruan](#)

3.puntua, Pertsona eta entitate onuradunak, zabalitzen zaie [ikastetxeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarteei.](#)

4. puntua, Onuradunen betebeharrak, puntu berria txertatu:

[10.Jarduera egin bitartean euskeraren erabilera bermatu eta lehenetsiko da, bai ahozko bai idatzizko komunikazioan.](#)

[11.puntuaren barruan, azpipuntu berri hau txertatu da:](#)

[f\) Diru-laguntzen onuradunak diruz lagunduko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioen edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du bai euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz, azken kasu honetan, euskara lehenetsiz.](#)

5.puntua, Diru-laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea: [erregistro elektronikoa derrigortzen da.](#)

10.puntua, Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak, denboraldia noiztik nora den zehazten da ([irailaren 1etaik deialdiaren urteko abuztuaren 30-era](#))

1.ERANSKINA (KLUBEN EGITURAK)

Testu aldaketak proposatzen dira honako puntuetan:

2.puntua, Pertsona eta erakunde onuradunak, a) puntua zuzendu da:

Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda egotea, dagokien Federazioan izena emanda egotea eta Egoitza soziala Tolosan izatea, esan ordez,

[Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen](#)

4. puntua, Dokumentazioa:

Aurreko testuan eskatzen zen:

- a) Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoelako ziurtagiriaren fotokopia (aurreneko aldia denean soilik).
- b) IFZaren fotokopia (aurreneko aldia denean soilik).
- c) Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketa egunean duelako frogagiria.
- d) Banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria, egiaztatzen duena kontua erakunde eskatzailearena dela (eskaera berria bada, edo beste kontu bat bada, Udalean dagoena ordezkatu duena),

[Testu berrian jarriko da jartzen zen lekuan jarriko da:](#)

[Diru-laguntza eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:](#)

[Eskatzaile berrientzako:](#)

- a) IFZaren agiria
- b) Banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria, egiaztatzen duena kontua erakunde eskatzailearena dela, eskaera berria denean , edo beste kontu bat bada, Udalean dagoena ordezkatu duena.

Eskaera guztiean:

- a) Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketa egunean duelako frogagiria.
- b) Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak edo kontsulta hori egiteko baimena ematen duen inprimakia beteta. (**Baimen klausula** inprimakia.)
- c) Diru-laguntzak eskatzeko **Zinpeko Aitorpena** inprimakia.

5. puntua, Dirulaguntzak zehazteko irizpideak:

I. Lizentziak

I. Federazioetako errendimenduko kirol-lizentziak.

Gehienez 3000 puntu emango dira modu honetara:

- a) 1 puntu lizentzia arrunt bakoitzeko
 - b) 1,5 puntu pilotako (esku-erreminta), arrauneko eta herri-kiroletako errendimendu-lizentzia bakoitzeko.
 - c) 2 puntu elite-lizentzia bakoitzeko (*)
 - d) 5 puntu kirol egokituko federazioaren lizentzia bakoitzeko
 - e) 0,5 puntu eskola lizentzia bakoitzeko
- Emakumezkoen lizentziek bi halako puntuazioa izango dute a, b, c eta d ataletan.

Lehiaketa-izaerarik ez duten mendi, arrantza , zikloturismo, BTT, piragua, orientazioa... lizentziak bestek beste, ez dira kontabilizatuko dirulaguntzarako, nahiz eta elkarte hauek egituren dirulaguntza lerro honetan parte har dezaketena, beste errendimenduko kirol-atal (**). Atal horretako errendimendu-lizentziak 30 baino gutxiago badira, lortutako puntuazio osoa % **15 murriztuko** da.

Irizpide hori bera erabiliko da ikastetxeei lotuta dauden talde-modalitateetako klubekin. Klub horiek 30 errendimendu- lizentzia baino gehiago badute, eta gainera jardunean emakumezko zein gizonezko taldeen ordezkartza badute, **EZ** zaie murrizketarik egingo.

Ordezkoa:

I. Federazioetako errendimenduko kirol-lizentziak (errendimenduko txapelketa edo liga ofizialetan partehartzeak bakarrik ematen ditu puntuak)

- a) Puntu 1 oinarrizko kirolari lizentzia bakoitzeko
- b) 1,5 puntu pilotako (esku-erreminta), arrauneko eta herri-kiroletako errendimendu-lizentzia bakoitzeko.
- c) 2 puntu elite-lizentzia bakoitzeko (*)
- d) 5 puntu kirol egokituko federazioaren lizentzia bakoitzeko
- e) 0,5 puntu eskola lizentzia bakoitzeko (benjamin, alebin eta federatuak ez diren gorakoko kategorien lizentziak, beti ere klubaren kirol eskolako kideak badira).
- f) Emakumezkoen lizentzien puntuazioari % 50 erantsiko zaie a, b, c eta d ataletan.

Aisialdiko lizentziak ez dute puntuak ematen.

Errendimendu-izaerarik ez duten mendi, arrantza, zikloturismo, BTT, piragua, orientazioa., patinaia, boleibola...lizentziak bestek beste (alegia, lehiaketa ofizialetan parte hartzen ez dutenek) ez dira kontabilizatuko diru-laguntzarako, nahiz eta elkarte hauek, egituren diru-laguntza lerro honetan parte har dezaketena, klubaren kirol-atal edo sekzioren (**). batek, 10 kirolari lizentzia (teknikariak ez dira kontutan hartzen) edo gehiago badituzte eta lehiaketa ofizialetan lehiatuz gero.

II. Lehiaketa maila

II. Ekipo bakoitzak errendimendu txapelketa ofizialetan duen lehiaketa-esparruaren arabera.

Gehienez 900 puntu emango dira, modu honetara:

- a) Lurraldekoa:** 1 puntu parte-hartzaile bakoitzeko (banakako kirolak), gehienez kategoria bereko lau parte-hartzaile. 0,5 puntu talde bakoitzeko.

b)Autonomikoa: 2 puntu parte-hartzaileko, banakako kiroletan, gehienez kategoria bereko lau parte-hartzaile. 1 puntu taldeko, taldeko kiroletan.

c)Estatukoa: 4 puntu parte-hartzaileko (banakako kirolak), gehienez lau. 8 puntu taldeko, taldeko kiroletan.

d) Europakoa: 10 puntu parte-hartzaileko.

e) Mundukoa: 15 puntu parte-hartzaileko.

Bosgarren lizentziatik aurrera, kategoria berean, talde gisa kontabilizatuko da.

*Estatu osoko edo goragoko esparru bateko lehiaketetan puntuaren balorea % 50 handituko da banakako modalitate hauetako bat bada: atletismo, igeriketa klasikoa, txirindularitza eta gimnasia erritmikoa.

*Lehiaketa-esparru ezberdinak behin bakarrik kontatuko dira, esparru horretako lehiaketak edo jardunaldiak gehiago izan badira ere.

*Aisialdiko ligak ez dira puntuatzen.

Ordezko testua:

II. Ekipo bakoitzak errendimendu txapelketa ofizialetan duen lehiaketa-esparruaren arabera.

a)Lurraldekoa: puntu 1 parte-hartzaile bakoitzeko (banakako kirolak), gehienez kategoria bereko lau parte-hartzaile. 0,5 puntu talde bakoitzeko.

b)Autonomikoa: 2 puntu parte-hartzaileko, banakako kiroletan, gehienez kategoria bereko lau parte-hartzaile. Puntu 1 taldeko, talde kiroletan.

c)Estatukoa: 4 puntu parte-hartzaileko (banakako kirolak), gehienez lau. 5 puntu taldeko, taldeko kiroletan.

d) Europakoa edo goragokoa: 15 puntu parte-hartzaileko.

*Puntuazioa parte hartutako kategoria gorenenak ezarriko du, bai taldeka bai banaka.

Bosgarren lizentziatik aurrera, kategoria berean, talde gisa kontabilizatuko da.

*Lehiaketa-esparru ezberdinak behin bakarrik kontatuko dira, esparru horretako lehiaketak edo jardunaldiak gehiago izan badira ere.

*Aisialdiko ligak ez dira puntuatzen.

III. Titulazioak

III. Indarreko lizentzia duen kirol titulu bakoitzeko.

Gehienez 500 puntu emango dira

- 0,5 puntu ofizial ez den heziketaren bat duen monitore/arbitro bakoitzeko.
- 1 puntu oinarrizko entrenatzaile (I. maila) edo KT1 (kirol teknikari) bakoitzeko.
- 3 puntu KT2, erdi mailako entrenatzaile (II. maila), edo irakasletza espezialitateduna, edo jarduera fisiko eta kiroletako tekniko bakoitzeko.
- 5 puntu KT3, goi mailako entrenatzaile edo Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziadun bakoitzeko.

Puntuazio bakoitzari %50 gehituko zaio, baldin eta tituludunak emakumeak badira.

Titulazioa ponderatuko da monitore, entrenatzaile bakoitzak astean duen dedikazioarekin.

Ordezko testua:

III. Indarreko lizentzia duen kirol titulu bakoitzeko.

Gehienez 100 puntu emango dira

- 0,5 puntu ofizial ez den heziketaren bat duen monitore/arbitro bakoitzeko.
- Puntu 1 oinarrizko entrenatzaile (I. maila) edo KT1 (kirol teknikari) bakoitzeko.
- 3 puntu KT2, erdi mailako entrenatzaile (II. maila), edo irakasletza espezialitateduna, edo jarduera fisiko eta kiroletako tekniko bakoitzeko.
- 5 puntu KT3, goi mailako entrenatzaile edo Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziadun bakoitzeko.

Puntuazio bakoitzari %50 gehituko zaio, baldin eta tituludunak emakumeak badira.

Titulazioa ponderatuko da monitore edo entrenatzaile bakoitzak astean duen dedikazioarekin, beti ere, elkartearekin duten lan-egoera arauturik badago.

Hau horrela, asteroko lanaldi erdiak titulazioaren puntuazioa bikoiztuko du eta asteroko lanaldia osoa bada berriz, laukoiztu.

V. Balorazioarako beste kontzeptu batzuk

- Desplazamendu gastuaren eragina balantze orokorrean, ohiko jardueretan, 10 eta 15 puntu arte, gastu aurrekontu osoaren % 25 eta 50% artean dagoenean.

Ordezkoa:

a) Desplazamendu gastuaren eragina balantze orokorrean, ohiko jardueretan, 10 eta 15 puntu arte, gastu aurrekontu osoaren % 25 eta 50% artean dagoenean.
Eta b) puntua kenduko da.

VI. Kirol txapelketa-memorialen antolaketa

Txertatuko da:

Gizarte arloan eragileena den elkartearen (kirol- modalitatearen arabera) jardunaldiak subentzionatuko dira, beti ere defizitarioak badira.

Kirol jardueren urteurrenak: txertatuko da,

Aurreko urteekin alderatuz urteurrena ospatzeko jarduerak proposamen ezberdinik badauka, horrela puntuatuko da:

Antolaketarako baliabideak:

> 25 pertsona..... 10 puntu
26-50 pertsona.....20 puntu
51-100 pertsona.....40 puntu
>100 pertsona.....50 puntu

Asistentzia sanitarioa ambulanzia bat baino gehiagorekin eta beste dotazio motorizatuak behar direnean:

lanaldi erdia....10 puntu

Mendi lasterketak badira % 50 erantsiko ahal izango da.

Ordezkoa izango da:

< 20 pertsona..... 10 puntu arte
20-50 pertsona.....20 puntu arte
51-100 pertsona.....30 puntu arte
100-150 pertsona..... 50 puntu arte
> 150 pertsona.....100 puntu arte

Asistencia sanitaria con más de 1 ambulancia y otras dotaciones motorizadas:

lanaldi erdia.....10 puntu arte

Zaitasun bereziko mendi lasterketak edo ibilbideak badira, % 50 erantsiko ahal izango da.

Balore erantsia.

.- % 1etik % 5era bitarteko desgaitasun psikikoren bat edo fisikoren bat dutenen integrazioa: gehienez, 5 puntu. Kendu egin da testu berrian

.- % 1etik % 5era bitartekoa kultura-aniztasuna: gehienez, 5 puntu. esan ordeztu esango du: kultura-aniztasuna: akzio positiboak integrazioaren alde gehienez 10 puntu.

Testu hau aldatuko da:

Atal honetan sar daitezke gainera, elkarteek eskaini eta sustatzen dituen, naturan txertatutako kirol jarduera ez konpetitiboak (modalitate ezberdinen kirol eskolak ez direnak). Udalaren dirulaguntza jarduera bakoitzeko, gehienez, defizitaren %25 bitartekoa izan daiteke.

Beste hau izango da ordezkoa:

EZ LEHIAKORRAK DIREN JARDUERAK

Atal honetan sar daitezke elkarteek eskaini eta sustatzen dituen, naturan txertatutako kirol jarduera ez konpetitiboak (modalitate ezberdinen kirol eskolak ez direnak).

Herritarrari zuzendutako proposamenak baloratuko dira integrazioari, gizarteratzeari, berdintasunari, bizikidetzari eta elkarbizitzari gainbalioa ematen badiote, beti ere, bere gastuak 1.500 €-tik gorakoak badira. Gehienez ere, 5 puntu emango zaizkio jarduerako.

Hitzarmenak eskola kirolarekin

hobariak esaten duen lekuan diru laguntza esango da.

Testu berria erantsiko da:

Banatu behar deneko guztizko kopurutik, hitzarmen hauek gauzatzeko kopurua kendu ahal izango da. Soberakinik geratu ezkerreko kendutako kopuruan, berriro ere hasierako partidari gehituko zaio.

7. puntua, Diru-laguntzaren aurrerakina,

Konturako aurrerakin bat eman ahal izango da, gehienez aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren % 50, baldin-eta Kirol departamentuak proposatu eta udal organo eskudunak hala

ebazten badu. Hartarako, nahikoa izango da diru-laguntzaren eskaera, behar bezala beteta, aurkeztea, esaten zuen lekuan, Konturako aurrerakin bat eman ahal izango da, gehienez aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren % 50, baldin-eta Kirol departamentuak proposatu eta udal organo eskudunak hala ebazten badu. Hartarako, nahikoa izango da diru-laguntzaren eskaera, behar bezala beteta, aurkeztea, horretarako eskatzen den dokumentazioarekin batera. Aurrerakinaren aukerik ez dute izango lehen aldiz eskatzen duten erakundeek.

8.puntua, Justifikatzeko kontua

Eskatzailea bete beharko du justifikatzeko kontua, helburu horretarako prestatutako inprimakiak erabilia (Kz-ko formularioa), baita kirol memoria deskribatzailea (A1 formularioa) eta, hala behar bada, antolatutako jarduera bakoitzaren memoria ere (A3 formularioa).

Ordezkoa

Diru-laguntzaren kitapenerako, elkarte eskatzaileak zuri-erako dokumentazioa bete beharko du horretarako dagokion inprimakietan:

- Kirol memoria orokorra (A1 inprimakia).
- Sarrera eta gastuen balantzea (dagokion inprimakian).
- *Fakturen zerrenda (dagokion inprimakian).*
- *Hala badagokio, jardueraren memoria berezia (A3 inprimakia).*

Bestetik, Kirol denboraldiaren barruan sortzen dira gastu guztiak onartuko dira, deialdia egin denaren aurreko urteko azken hiruhilekokoak badira ere esaten duen lekuan, esango du:

Kirol denboraldiaren barruan sortzen dira gastu guztiak onartuko dira, deialdia egin denaren aurreko urteko azken lauhilekokoak badira ere.

2.ERANSKINA (ESKOLA KIROLA)

Aldaketak proposatzen dira honako puntuetan:

3. puntua, Eskaeren Aurkezpena

Aurreko atalean zehaztutako baldintzak bete eta diru-laguntza hauek eskatu nahi dituzten ikastetxeek edo ikastetxeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarteek honako hau aurkeztu behar dute Udaletxeko erregistroan: **diru-laguntza eskatzeko inprimakia**, behar bezala beteta, eta berarekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

Ordezkoa:

Aurreko atalean zehaztutako baldintzak bete eta diru-laguntza hauek eskatu nahi dituzten ikastetxeek edo ikastetxeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarteek honako hau aurkeztu behar dute Udaletxeko **erregistroa elektronikoa bidez *Kiroletako diru-laguntza eskaera izeneko inprimakia***, behar bezala beteta, eta berarekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak edo kontsulta hori egiteko baimena ematen duen inprimakia beteta. (***Baimen klausula*** inprimakia. Diru-laguntzak eskatzeko ***Zinpeko Aitorpena*** inprimakia.

5.puntua, Dirulaguntza zehazteko irizpideak

a) Eskola kirolean izenematea

Txertatuko da: Jolas-hezi programan izeneman duten aurrebenjaminak: 0,5 puntu bakoitzeko.

Kenduko da: testuan zegoen "gehienez 400 puntu banatuko dira" kendu egingo da testu berrian.

Infantilen kategoriatik aurrera (hau barne), ikastetxeko eskola kiroleko izenemate bakoitzak 2 puntu balioko ditu, eta neskena bada, hiru. Honen ordez jarriko da:

Infantilen kategoriatik aurrera (hau barne), ikastetxeko eskola kiroleko matrikulazio (lehiaketa

ibildidean) bakoitzak puntu 1 balioko du, 1,5 puntu neskenak. Jarduera puntuiletako partehartzea ez da kontatuko.

b) beste jarduerak,

Ohiko egitarautik eta egutegitik kanpo, eskualdeko egitarau eta egutegi komuna osatzen dituzten hastapeneko beste kirol jarduera batzuk: puntu 1 jarduera bakoitzeko, 15 puntu arte gehienez. Gutxienez lau saio eskaintzen dituztenak kontatuko dira.

Ordezkoa,

Otras Actividades de iniciación deportiva [desde la categoría prebenjamín](#), que complementan el programa y calendario común de la comarca: 1 punto por actividad, hasta un máximo de 15 puntos. Se contabilizarán las que incluyan como mínimo 4 sesiones ([una hora de duración mínima](#)) durante el curso escolar.

c) Eskola kiroleko begiraleak.

Gehienez 40 puntu emango dira, modu honetara, esan ordez [“Gehienez 20 puntu emango”](#) dira esango du

Kiroletako goi-mailako titulu ofiziala edo heziketa arloan, ordezko: [Goi mailako titulu ofiziala edo parekoa](#).

- Aldundiaren on-line ikastaroan parte hartu duela edo egiten ari dela egiaztatzen duten eskola kiroleko monitoreak, eta gainera martxan dagoen ikasturteari dagokion eskola-lizentzia dutenak, 2 puntu emango zaizkio eta 3 emakumea bada.

- Udalak antolatzen dituen prestakuntzarako ikastaroetan parte hartuz gero eta gainera martxan dagoen ikasturteari dagokion eskola-lizentzia izanez gero, puntu bat (1) emango zaio, eta 2 puntu emakumea bada.

Ordezkoa:

- Jarduera fisiko eta kiroleko teknikari (TAFYD) edo parekoa, eta gainera martxan dagoen ikasturteari dagokion eskola-lizentzia dutenak, 2 puntu emango zaizkio eta 3 emakumea bada.

- Tolosako Udalak antolatzen dituen Eskola Kiroleko ikastaroetan edota Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Eskola Kiroleko ikastaroetan parte hartuz gero, edo pareko tituluoa, eta gainera martxan dagoen ikasturteari dagokion eskola-lizentzia izanez gero, puntu bat (1) emango zaio, eta 2 puntu emakumea bada.

d.puntua, Hitzarmenak kirol klubekin edo beste erakunde batzuekin.

Udalerriko ikastetxe edo, guraso elkarte, eta kirol-kluben artean egiten diren hitzarmenengatik, **puntu bat** jasoko du egiturak (ikastetxe-guraso elkarte) hitzarmenak adosten duen jarduera bakoitzagatik, esaten duen lekuan, esango du:

Udalerriko ikastetxe edo, guraso elkarte, eta kirol-kluben artean egiten diren hitzarmenengatik, egiturak (ikastetxe-guraso elkarte) honako puntuazioa gehitu ahal izango du hitzartutako kirol modalitateengatik:

1 modalitatepuntu 1
2 modalitate.....3 puntu
3 modalitate.....5 puntu
4 modalitate.....7 puntu
5 modalitate edo gehiago10 puntu

e) Proporzionaltasuna: koordinatzailearen ordu dedikazioa aldatzen da, 50 zena, 60 ordu jarriko da. Zehazten da aplikatuko den formularen €-aren balorea, 5-10 bitartekoa izango dela.

Eta koordinatzailearen zeregin nagusiak zehazten dira testu berrian : (ikasturtearen egitaraua prestatu, begiraleen izendapena, taldeak egituratu, kirol taldeen ikuskapena eta jarraipena, lehiaketaren egutegia antolatu, eskola kiroleko koordinatzaile mahaian partehartu besteak beste).Kopuru hau baremoa aplikatu baino lehen, banatu beharreko kopurutik gordeko da.

7.puntua, Diru laguntzaren ordainketa

a) Diru-laguntzaren eskaera (inprimaki normalizatua).

b) Memoria justifikatzailea, eredia (A2 formularioa) behar bezala beteta.

Gastuen frogagirik bat etorri beharko dute gastuen balantzean zehaztutako kontzeptuekin. Banaka hartuta emandako diru-laguntzaren % 25 gainditzen duten frogagiri guztiak begiratuko dira.

c) Egonez gero, klubekin sinatutako hitzarmenak (kopia).

Ordezko testua izango da:

a) Kirol Memoria (A2 inprimakia) eta horrekin batera egitura bakoitzak bere ikastetxean egiten duen ikasturteko kirol eskaintza.

b) Kontu zurigarria, fakturen zerrenda. (horretarako prestatutako inprimakia).

c) Fakturak

Gastuen frogagirik bat etorri beharko dute gastuen balantzean zehaztutako kontzeptuekin. Banaka hartuta emandako diru-laguntzaren % 25 gainditzen duten frogagiri guztiak begiratuko dira.

d) Egonez gero, klubekin sinatutako hitzarmenak .

8. puntua Diru laguntzaren aurrerakina

Kirol Departamentuak alde zuzenetik proposatuta, eta dagokion udal organoaren erabakiz, aurrerakin bat eman ahal izango da diru laguntza osoaren kontura. Nolanahi ere, aurreko urtean jasotako laguntzaren % 50 baino handiagoa ez da izango, beti ere eskatzaileak zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela justifikatzen badu.

Ordezko testua izango da:

Kirol Departamentuak alde zuzenetik proposatuta, eta dagokion udal organoaren erabakiz, aurrerakin bat eman ahal izango da diru laguntza osoaren kontura. Nolanahi ere, aurreko urtean jasotako laguntzaren % 50 baino handiagoa ez da izango. Interesa duen entitateak espresuki eskatuko dute aurrerakina eskaera formalizatzeko momentuan.

3.ERANSKINA (JARDUERA BEREZIAK)

Testu aldaketak proposatzen dira honako puntuetan:

2.puntua,Pertsona eta entitate onuradunak

Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteetan eta Erakundearen Erregistroan eta dagokien Federazioan inskribatuta egotea, kirol elkarteetan kasuan.

Ordezkoa:

Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan edo Elkartearen Erregistro Orokorrean izena emanda egotea, eta egoitza soziala Tolosan izatea.

4.puntua,Dokumentazioa

Aurreko testuan eskatzen zenez gain, testu berrian espresuki eskatuko da gainera: 2.-Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak edo kontsulta hori egiteko baimena ematen duen inprimakia beteta. (*Baimen klausula* inprimakia).

4.-Jardueraren aurrekontuko diru-sarrerak eta gastuak xehatuta, jarri ordez, jardueraren proiektua eta aurrekontua, diru-sarrerak eta gastuak xehatuta. (A3 Proiektua inprimakia), jarriko du.

5.- Diru-laguntzak eskatu ahal izateko zinpeko aitortpena.

6.puntua, Ebaluazioa eta diru banaketarako irizpideak:

Klubaren urteurrenaren, testu berrian sartuko da, urteurrenaren ospatzeko jardueraren bereiztailea bada, baloratuko egingo da.

Antolaketa baliabideak,

Recursos organizativos (humano, logístico)

> 25 personas..... 10 puntos.

26-50 personas.....20 puntos.
51-100 personas.....40 puntos
>100 personas.....50 puntos

Asistencia sanitaria con más de 1 ambulancia y otras dotaciones motorizadas:

½ jornada....10 puntos
> ½ jornada....hasta 25 puntos

Ordekoa:

Antolaketarako baliabideak (pertsonek, logistika)

< 20 pertsona..... 10 puntu arte
20-50 pertsona.....20 puntu arte
51-100 pertsona.....40 puntu arte
100-150 pertsona..... 50 puntu arte.
>150 pertsona.....100 puntu arte

Asistentzia sanitarioa ambulanziaz bat baino gehiagorekin eta beste dotazio motorizatuak behar direnean:

lanaldi erdia10 puntu arte
> 12 ordu eguneko.....100 puntu arte

Antolakuntzan zailtasun bereziak dituzten mendi lasterketak edo ibilbideak badira, % 50 erantsiko ahal izango da.

Kirol maila (parte-hartzaileak-jarduera)

- parte-hartzaileen kirol maila txikia, 0 puntu
- kirol maila ertaina: modalitate jakinetan, Euskadi mailako txapelkunak eta errekorrak eta antzekoak, 10 puntu.
- kirol maila, estatuko txapelkunak eta errekorrak eta antzekoak 20 puntu.
- lurreko mailako txapelketa, 10 puntu.
- Euskadiko txapelketa, 25 puntu.
- Espainiako txapelketa, 40 puntu.

Parte hartzaileen kopurua

>1000	50 puntu
501 - 1000	30 puntu
251-500	20 puntu
101 - 250	10 puntu
51 -100	3 puntu
< 50	0 puntu

Aurrekontua eta defizitaren arteko proportzioa: 14 puntu

0-0,2.....4 puntu
0,3- 0,4.....6,5 puntu
0,5- 0,6.....9 puntu
0,7-0,8.....11,5 puntu
0,9-1,0.....14 puntu

Ordezkoa:

Kirol maila

- lurreko mailako txapelketa, 5 puntu.
- Euskadiko txapelketa, 10 puntu.
- Espainiako txapelketa, 25 puntu.

Parte hartzaileen kopurua

>1000	100 puntu arte
501 - 1000	60 puntu arte
251-500	40 puntu arte
101 - 250	10 puntu arte
51 -100	3 puntu arte
< 50	0 puntu

Aurrekontua eta defizitaren arteko proportzioa: 14 puntu **gehienez.**

0-0,2.....	4 puntu
0,3- 0,4.....	6,5 puntu
0,5- 0,6.....	9 puntu
0,7-0,8.....	11,5 puntu
0,9-1,0.....	14 puntu

Izen-emateko kuotarik ez duten sustapen-jardueretan ez da diru-sarreraren frogagiririk aurkeztu beharrik izango, kendu egingo da testu berrian.

Balore erantsietan:

.- Desgaitasun psikikoren bat edo fisikoren bat dutenen integrazioa, % 1etik % 5era bitartekoa: gehienez, 5 puntu. Puntu hau kendu egingo da testu berrian, errepikatzen delako.

.- Kultura-aniztasuna, % 1etik % 5era bitartekoa: gehienez, 5 puntu.

Ordezkoa:

.- Kultura-aniztasuna: barneratze aldeko akzio positiboak : gehienez, 10 puntu.

7.puntua, Dirulaguntzaren ordainketa eta justifikatzeko kontua, zegoen testua zen:

Emandako diru-laguntza diruz lagundutako jarduera bukatutakoan ordainduko da. Ezinbestekoa izango da **justifikatzeko kontua** aurkeztea, deialdian adierazitako epearen barruan. Kontu hori helburu horretarako prestatuta dauden inprimakietan (Kz formularioa) aurkeztuko da eta bertan sartuko da jardueraren memoria bat (A3 formularioa).

Ordezkoa izango da:

Eskaerak eta honekin batera beharrezkoa den dokumentazioa aukertu eta baloratu ondoren, diru-laguntzaren ebazpena egingo da.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da. Lehen zatia, ebazpenarekin batera, kopuru osoaren %75-koa izango da,

Diru-laguntzaren kitapenerako, hau da gelditzen den % 25a, elkarte eskatzaileak zurietarako dokumentazioa bete beharko du (balantzea, fakturen zerrenda) horretarako dagokion inprimakietan eta baita jarduera memoria ere (A3 inprimakia-memoria).

4.ERANSKINA (IGERIKETA KANPAINA)

Honako puntuetan proposatzen dira aldaketak:

2.puntua, Ikastetxe onuradunak, betebeharrak aldatzen dira:

Egoitza Tolosan izan behar dute.

Ikastetxearen bidez eman behar da izena, Aldundiak Eskola Kirolean izena emateko jarritako aplikazio informatikoa erabiliz.

Diru-laguntzaren eskaera formala egin.

Ordezkoa:

Diru-laguntzak jasotzeko, ikastetxeek ondorengo baldintza bete beharko dituzte:

Egoitza Tolosan izan behar dute.

3.puntua, Eskaeren aurkezpena, puntu berria da:

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten ikastetxeek, erregistro elektronikoaren bitartez diru-laguntza eskaera aurkeztu beharko dute ondorengo dokumentazioarekin batera:

- Diru-laguntzak eskatu ahal izateko zinpeko aitortpena.

- Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin egunean egotearen ziurtagiria edo Udalak berau konprobatzeko berariazko baimen klausula .

“Dokumentazio hau beste diru-laguntza bat (eskola-kirola) eskatzerakoan aurkeztu bada, ez da berriro aurkeztu beharko” .

Testu berrian puntu hau txertatu denez, testu zaharreko 3. puntutik aurrera (hau barne) bat

gehiago izango dira, izan ere 3.zena 4.izango da eta horrela guztietan.

7.puntua, Balorazio batzordea zena Dirulaguntzaren ordainketa izango da eta haserako testua: A4 inprimakia jarri ordez, [jardueraren memoria \(A4 inprimakia jarriko du\)](#).

Kiroletako Ordenantzaren aldaketa proposamenari, partehartze prozesua bidez, herritar, erakunde eta kirol elkarteei, euren iritzia eta iradokizunak aurkezteko zabaldu zen epea gainditu eta gero, adierazten da ekarpenik ez dela jaso.

Horrenbestez, ikusirik Euskera, Berdintasuna eta Idazkaritzaren aldeko txostenak jaso eta aldekoak direla egiaztatu ondoren, eta kontuhartzailearen txostena jaso bitarte,

PROPOSAMENA

Lehena: Kirol Ordenantza espezifikoa eta bere eranskinetan proposatu diren aldaketak hasieraz onartzea.

Bigarrena: Ordenantza honen aldaketak eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

Hirugarrena: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

Laugarrena: Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

Arantza Estanga
Zerbitziburua

Tolosan, 2018ko abenduaren 18(e)an